

DURANGO KIROLAKen kidea zarenez, dei egiten dizut **Udaletxeko 2. Pisu**a, **Multimedia aretoan** egingo den **EZOHIKO** bilerara, datorren **OSTEGUNE**an **URRI**Aren 26an, 16:00etan lehenengo deialdian eta, hala badagokio, ordu-bete geroago, adierazitako orduan gehiengorik ez dagoelako (*Toki Erakunde*en *Antolakuntza*, *Funtzionamendu* eta *Erregimen Juridikoaren Araudiaren 14.1 artikulua*).

GAI ZERREDA

1. Deialdi honen premiaren berrespena.
2. Bidezkoa balitz, Kirol-zerbitzuen baldintza-agiria onartzea.
- 3.

Se le convoca a Vd., como miembro del Consejo Rector de **DURANGO KIROLAK**, a la reunión **EXTRAORDINARIA** que se celebrará en la **Sala Multimedia, 2º piso del Ayuntamiento**, el próximo **JUEVES**, día 26 de **OCTUBRE**, a las 16:00 horas en primera convocatoria y en segunda, si hubiera lugar, una hora después, al no concurrir mayoría a la hora señalada. (*Art. 14.1 del Reglamento de Organizaciones, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales*).

ORDEN DEL DÍA

1. Ratificación de la urgencia de la presente convocatoria.
2. Aprobación, si procede, del Pliego de Servicios deportivos.

Durango, 2023ko Urriak 23

PRESIDENTEA/EL PRESIDENTE

Durango, 24 de octubre de 2023

Mikel Ortega Maraño
Durango Kirolak-eko Lehendakaria
Presidente Durango Kirolak

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente

Durango, 23 de Octubre de 2023

IDAZKARIA/EL SECRETARIO



2023-10-26

2023ko URRIaren 26ko EZOHICO BATZARRA
JUNTA EXTRAORDINARIA del 26 de OCTUBRE de 2023

Presidentea / Presidente

Don Mikel Ortega Maraón Jauna (EAJ-PNV).

Batzarkideak / Asistentes

Doña Mireia Elkoriribe Zenikaonandia Andrea (EAJ-PNV).

Don Jon Sergio Atxotegi Jauna (EAJ-PNV).

Doña Ane Abanzabalegi Areitio Andrea (EH Bildu Durango).

Don Iker Urkiza Quilez Jauna (EH Bildu Durango).

Doña Ima Garrastatxu Urbaneja Andrea (EH Bildu Durango).

Don José Ángel Orbegoza Ercilla Jauna (DES-SVD).

Don Jorge Varela Dorrio Jauna (HE-ID).

Don Carlos David García Fernández Jauna (PP).

Presidente berak gonbidatuak / Invitados/as a instancias del Presidente

Don Asier Bikandi Elorriaga Jauna (Durangoko Udal-Erakunde Autonomoen Gerentea).

Don Iñaki Inza Arregui Jauna (Kirol teknikoa / Técnico deportivo).

Idazkaria / Secretaria

Doña María Elexpe Arroyo Andrea.

Tokia: Udaletxeko 1. Solairuan; Pleno Aretoa.

Izaera: Ezohikoa.

Hasiera ordua: 16:00

Amaiera ordua: 16:18

Lugar: 1º Piso del Ayto. Sala de Plenos.

Naturaleza: Extraordinaria.

Hora de inicio: 16:00

Hora de finalización: 16:18

Batzordeko Presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu dira:

Abierta la sesión por el Presidente de la Comisión en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del día y que son los siguientes:

2023-10-26

01. Deialdi honen premiaren berrespena.

Bozketari ekin zaio, eta honako hau izan da emaitza:

Aho batez onartu da.

Batzordea jakinaren gainean dago.

02. Bidezkoa balitz, Kirol-zerbitzuen baldintza-agiria onartzea.

Varela jaunaren iruzkinari, subrogatu beharreko langileen titulazioak jasota ez daudela, Bikandi jaunak esan dio aurreko pleguetan sartu zirela (lehen sorospenei buruzkoaz gain), baina gaur egungoetan ez, Legearen indarragatik eta Kontratazio arlotik emandako argibideengatik. Luzapena badago, eska daiteke. Intzidentzia handiena subrogatutako pertsonen kasuan agertzen da. Uste dugu gaur egun langile guztiek betetzen dutela. Bai, hala eskatzen dugu ordezkapenen kasuan. Laneko gaia da, enpresarena, ez da adierazgarria pleguetan. Hala ere, ez dago inolako eragozpenik sartzeko.

Eska dakioke ordezeko pertsona bati titular bati eskatzen ez zaiona? (Varela jauna). Titularrak eskatutako titulazioa duela aurreuposatzen da. (Bikandi jauna).

Urkiza jaunak esan du aldaketarik esanguratsuen loteen murrizketa dela (4tik 2ra). Aldaketa "politikoa" dela. Lote gehiagorekin dibertsifikatu egiten da eta enpresa gehiago aurkez daitezke. Gainera, balizko greba baten kasuan, zailagoa da zerbitzu guztiak "bahitzea". Dibertsifikazio

01. Ratificación de la urgencia de la presente convocatoria.

Se procede a su votación, con el siguiente resultado:

Se aprueba por unanimidad.

La Junta se da por enterada.

02. Aprobación, si procede, del Pliego de servicios deportivos.

Al comentario del Señor Varela, de que no constan las titulaciones del personal a subrogar, el Señor Bikandi le comenta que sí se incluyeron en los anteriores pliegos (además de lo referente a primeros auxilios), pero en los actuales no, debido a la vigencia de la Ley y a las indicaciones desde el área de Contratación. En caso de prórroga, sí se puede exigir. La mayor incidencia se presenta en el caso de las personas subrogadas. Creemos que en la actualidad todo el personal cumple. Sí lo exigimos en el caso de las sustituciones. Es un tema laboral, de la empresa, no es significativo en los pliegos. No obstante, no hay ningún inconveniente alguno en incluirlo.

¿Se le puede exigir a una persona sustituta lo que no se le exige a una titular?. (Señor Varela). Se presupone que el titular tiene la titulación requerida. (Señor Bikandi).?

El Señor Urkiza comenta que el cambio más significativo es la disminución de lotes (de 4 a 2). Que es un cambio 'político'. Con más lotes se diversifica más y pueden presentarse más empresas. Además, en caso de una posible huelga, es más difícil que 'secuestren' todos los servicios. Gracias a

2023-10-26

horri esker, horietako bi mantendu ahal izan ditugu. Gainerakoan, pleguek ildo beretik jarraitzen dute, eta azpimarratzekoa da greba ez dela haien erruz sortu.

Loterik ez badago, justifikaziorik badago. Irizpide guztiak dira zilegi eta justifikagarriak. (Bikandi jauna).

Varela jaunaren iritziz, loteak gutxitzeak zaildu egiten du enpresa txikiei aurkeztea, kaudimen ekonomikoa asko handitzen baita. Adierazi du, berriki, Lehiaren Euskal Agintaritzak Aldundiaren Kontratazio Zentralari eman diola arreta, ahalik eta lote gehien ez aplikatzeagatik lizitatzailleen parte-hartze handiagoa bermatzeko, eta horrek zerbitzu publiko hobeak ekarriko dituela. Era berean, proposatzen den fitness aretoko ordu kopuruak ez du jasotzen greban dauden langileen eskakizun nagusietako bat (fitness ordutegia guztiz langileek betetzen dute; 14 ordu astelehenetik ostiralera, 10 ordu larunbatetan eta 5 ordu igandeetan). Oraingo proposamenarekin (ordu erdi goizez eta ordu erdi arratsalde, astelehenetik ostiralera; 2 ordu goizez eta 2 ordu arratsalde larunbatetan eta 2 ordu igandeetan, ez litzateke langilerik egongo aretoan), zerbitzua erabat betetzen ez denez, beste greba bat eragin lezake. Zalantzak dituzte.

Pleguek herriarentzako zerbitzuaren beharretara bideratuta egon behar dute, eraginkortasun eta iraunkortasun printzipioetan oinarrituta. Errefoztuak zerbitzuaren benetako beharren arabera eta teknikariek ezarritako irizpideen arabera aplikatuko dira. (Bikandi jauna).

esta diversificación, hemos podido mantener dos de los mismos. Por lo demás, los pliegos siguen la misma línea y cabe destacar que la huelga no se ha generado por culpa de ellos.

En caso de no haber lotes, si cabría una justificación. Todos los criterios son legítimos y justificables. (Señor Bikandi).

El Señor Varela opina que la disminución de lotes dificulta la presentación a las empresas pequeñas, al aumentar mucho la solvencia económica. Indica que recientemente, la Autoridad Vasca de la Competencia ha llamado la atención a la Central de Contratación de la Diputación, por no aplicar el mayor número de lotes para que se garantice una mayor participación de licitadores, lo cual redundaría en mejores servicios públicos. Tampoco el número de horas de la sala fitness que se propone recoge una de las grandes exigencias de los/las trabajadores/as en huelga (horario de fitness cubierto totalmente por personal; 14 horas de lunes a viernes, 10 horas los sábados y 5 los domingos). Con la propuesta actual, (media hora a la mañana y media hora a la tarde, de lunes a viernes; 2 horas por la mañana y dos horas por la tarde los sábados y 2 horas los domingos, no habría personal en sala), al no cubrirse totalmente el servicio, podría desencadenar en otra huelga. Tienen dudas.

Los Pliegos deben estar enfocados a necesidades del servicio para el pueblo, basados en los principios de eficacia y sostenibilidad. Los refuerzos se aplicarán en base a las necesidades reales del servicio y según los criterios marcados por el personal técnico. (Señor Bikandi).



Plegu honetan fitness aretoaren ordutegi osoa ondo baino hobeto betetzen da. Aurreko lehiaketan, 4 lote egon arren, ez zen enpresa txikirik aurkeztu. (Elkoroiribe andrea).

Lote-kopurua alde batera utzita, berme ekonomikoak lehen zegoenetik orain dagoenera igo izana ere zerbitzua emateko bermea da. (Orbegozo jauna).

Varela jaunak argitu du berme ekonomikoa ez dela igo. Bi lotetan batzean, haietako bakoitzeko bermea handiagoa da, baina berme osoak berdina izaten jarraitzen du.

Proposamena bozkatu egiten da honako emaitza honekin:

- Alde: EAJ-PNV (3).
DES-SVD (1).
PP (1).
- Abstentzioak EH Bildu Durango (3)
- Kontra: HE-ID (1).

Batzordea jakinaren gainean dago.

Emaitza horren ondoren, kirol zerbitzuen pleguak onartu dira

Presidenteak amaiera eman dio batzarrari, eta nik, batzordeko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

En este pliego se cubre perfectamente todo el horario de la sala fitness. En el anterior concurso, a pesar de haber 4 lotes, no se presentó ninguna pequeña empresa. (Señora Elkoroiribe).

Independientemente del número de lotes, que las garantías económicas hayan subido, de lo que antes había a lo que ahora hay, también es una garantía para dar el servicio. (Señor Orbegozo).

El Señor Varela aclara que la garantía económica no se ha subido. Al juntar en dos lotes, la garantía por cada uno de ellos es superior, pero la garantía total sigue siendo la misma.





Se procede a su votación, con el siguiente resultado:

- A favor: EAJ-PNV (3).
DES-SVD (1).
PP (1).
- Abstenciones: EH Bildu-Durango (3).
- En contra: HE-ID (1).

La Junta se da por enterada.

Tras el resultado, quedan aprobados los pliegos de servicios deportivos.

El Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta. De todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

ORTEGA MARAÑÓN, Mikel 	ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA, Mireia 	SERGIO ATXOTEGI, Jon 
ABANZABALEGI AREITIO, Ane 	URKIZA QUILEZ, Iker 	GARRASTATXU URBANEJA, Ima 
ORBEGOZO ERCILLA, Jose Ángel 	VARELA DORRIO, Jorge 	GARCÍA FERNÁNDEZ, Carlos David 